

EKAINAK 20, PERTSONA ERREFUXIATUEN EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2001. urtean Nazio Batuen Batzar Orokorrak ekainaren 20a pertsona errefuxiatuen egun bezala izendatu zuen. Nahiz eta urtero kontuan hartu beharreko data den, uste dugu gaur egungo egoerak erreflexio sakonago bat egitea behartzen gaituela.

Munduan 60 milioi errefuxiatu daude, gehienak Ekialde Hurbilean eta Afrika beltzean dute jatorria, baina mundu mailako drama humanitariora da. Afganistan, Irak, Siria, Kurdistan, Sahara, Tibet... Herrialde eta eremu askotan dute jatorria errefuxiatuek. Egoera hauek guztiek komunean dutena, ordea, gatazka politiko-militar eta sozioekonomikoez eragindako mugimendu migratorioak dira. Inor ez da borondatez bere herrialdetik irteten.

Pertsona hauen egoera ez da gauetik goizera sortu. Europak eta mundu mailako potentzia handienek hamarkadetan hartutako erabakien ondorioa da. Europak, esaterako, nazioarteko legeria bihurritu eta giza eskubideen babes bultzatuko lukeen jarrera humanistari eutsi beharrean, neurri polizial eta militarrek aktibatuta dituzten azken hilabeteetan.

Pertsona errefuxiatuen eskubideak urratzen ari dira etengabe Europan. Gezur handi baten aurrean gaude, Europa bi aurpegirekin jokatzeko ari delako. Errefuxiatuen eskubideen babesle gisa agertu nahi du baina, aldi berean, errealitatea ezkutatu nahian dabil. Milaka gizon, emakume eta haur noraezean ari dira, estatu batetik bestera espulsatuak, internamendu zentroetan sartuak, bortxatuak, desagerraraziak, jipoituak, lapurtuak eta jazarriak... Eta hori guztia Europako estatuen babesarekin.

Arduragabekeria eta giza eskubideen urraketa horren aurrean, herritarrok, bakoitza bere eragin esparrutik, norberak eskura duen aukeraz baliatuta, errefuxiatuak diren pertsonen ongi etorria eman beharrean gaude, aitortza, erreparazioa eta laguntza eskainiz.

Nazioarteko harremanen bestelako antolaketa aldarrikatzea ezinbestekoa da, herrien eta herritarren eskubideak aintzat hartuko dituen bestelako mundua. Bestalde, belaunaldi belaunaldi gerra eta erbestean ezagutu duen herri baten kideak garen heinean, elkartasuna gure balore eskalaren goialdean kokatzen dugu.

Zaldibiako Udaltzakoak, Espainiar Gobernua eta Europar Batasunaren jarrerak salatzeaz gain, pertsona migratzaile eta errefuxiatuen etorrerak oztopatzeari utzi eta euren etorrerak azkartu ditzaten eskatzen du.

Zaldibiako Udaltzaren Osoko Bilkurak ekainaren 20an ospatzen den pertsona errefuxiatuen egunarekin bat egiten du eta eragile ezberdinek gure herri eta hirietan antolatu dituzten ekimenekiko atxikimendua adierazten du.

Zaldibian, 2016ko ekainaren 21ean